

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko Garbigune sarearen eta Reutilizagune autokonponketa-zentroaren funtzionamendurako araudia

Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2025eko otsailaren 21eko ohiko bilkuran eman zion hasierako onespena Garbigune sarearen eta Reutilizagune autokonponketa-zentroaren funtzionamendurako araudiari.

Hasierako onespeneren iragarkia 2025eko martxoaren 14ko ALHAOn argitaratu zen.

Maiatzaren 2an amaitu zen jendaurreko 30 eguneko informazio-aldia (Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 49 c artikuluan ezarria), eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Horrenbestez, erabakia behin betiko bihurtu da.

Erabakia administrazio orokorrari eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari jakinarazi zaie, eta ezarritako epean ez dute inolako errekerimendurik egin. Beraz, ALHAOn argitaratu behar da indarrean jar dadin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezarritakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 4an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA